



HezkiErak

Inpaktu hezkidetzailea
neurtzeko tresna

HezkiErak:

Hezkidetza egiteko Erak.

Creative Commons



CC BY-NC-SA 4.0 DEED

Attribution-NonCommercial-ShareAlike 4.0 International

Lan-taldea

Sorginlore Gizarte Elkartea eta
Ikertze Kultur Elkartea



Itzulpena

Irakurketa Erraza

Diseinua eta maketazioa

TaPuntu

Erakunde laguntzaileak



HezkiErak:

Hezkidetza egiteko Erak.

→ AURKIBIDEA



1. Kaixo	9
2. Hezkidetza eta Pedagogia Feministak	12
3. Ikasketa eta inpaktu hezkidetzailea	16
4. Teoriatik praktikara	23
4.1 Has gaitezen...	25
4.2 Pixkanaka	35

1 → KAIXO



Sorginlore eta Ikertze gara, eta Imaginá Palabrarekin batera sortu dugu eskuen artean duzun dokumentua. Duela urte batzuetatik hona, elkarlanean ari gara hainbat eremutan (ikastetxeetan, unibertsitateetan, gazteen aisialdian, hezitzaileen prestakuntzan, administrazio publikoetan...) inpaktua izan nahi duten hezkidetza-prozesuak definitzen eta abian jaritzen. Dokumentu honek lan horretan argi eta garbi aurkitu dugun beharretako bati erantzun nahi dio.

Gure herrietan eta auzoetan, gero eta nabariagoa da hezkidetza eta pedagogia feministak landu behar direla. Horregatik sortu dira, besteak beste, indarrean dagoen esparru juridikoa¹ eta Hezkidetzaren II. plana², hezkidetzari eta berdintasunari ekitea derrigorrezko bihurtu dutenak. Hainbat eragilek ibilbide luzea egin dute eremu honetan, eta, horren ondorioz,

¹ Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Oorganikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako / Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. / Abenduaren 21eko 17/2023 LEGEA. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena

² EAE-ko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza Plana, Berdintasunaren eta Tratu Onen Bidean 2019-2023

³ Delgado, M. (2023). Hezkidetza eta Pedagogia Feministen II. Kongresua. 'Hetero Araua Plazerez Lehetu!'

material didaktiko, gida, webgune eta halakoen aukera zabala dugu eskura. Material horiek zehatz-mehatz azaltzen digute nola ekin diezaiokegun hezkidetzari adin eta kolektibo desberdinetan: legeak zer dioen, lehentasunak zein diren, diagnostikoak eta planak egiteko baliabideak, zer gai landu behar ditugun, gai horietan sakontzeko dinamikak eta metodologiak, erabil ditzakegun estrategiak nork parte hartzen duen edo nori zuzenduta dagoen kontuan hartuta...

Hezkidetzan sinesten dugunon helburua gizartearen eraldaketarantz eta hezkuntza feministarantz aurrera egiten jarraitzea da. Esperientzian oinarrituta, badakigu horretarako lanak etengabea eta zeharkakoa izan behar duela. Aipatu berri ditugun jarduera eta dinamika guztiak ongi etorriak dira, baina Mireia Delgadoren zirimiria metafora³ gogoratzen, hezkidetzalana benetan eraginkorra izan dadin, beti, une oro egin behar da, pixkanaka, guztia blai egin arte.


Hezitzaileok gure jarduera garatzen dugunean komeni da kontuan izatea nolako inpaktu edo eragina izaten ari garen lan egiten dugun gazteengan⁴. Baieztapen horrek begi-bistakoa dirudi, baina funtsezkoa da ikuspegi hori ez ahaztea eta gure jardueran eranstea, emaitzak ikusteko, neurtzeko eta aurrerapausoak ematen jarraitzeko: esaten duguna, antolatzen duguna, prestatzen duguna... zertarako egiten dugu? Zer aldaketa eragitea espero dugu gazteengan? Zer eragiten du jasotzen duten pertsonengan, taldean eta ingurunean? Azken finean, esku artean duzun koaderno honen helburua tresna bat ematea da, nerabezaroan abian jartzen ditugun prozesuek eta esku-hartzeek duten inpaktu hezkidetzalea neurtzeko.

Sarrera hau amaitu aurretik, beste bi ohar dituzue hemen:

1 → Jakinarazi nahi dizuegu hurrengo orrietan arreta emateko alderdi eta gai asko aurkituko dituzuela. Gure asmoa ez da zuen zereginen motxilan zama gehiago ipintzea. Normalean, behar edo hutsune bat sumatzen dugunean hasten gara hausnartzen. Alde horretatik, mahaigaineratzen ditugun galderen helburua da barneko hausnarketa hori eragitea, egiten dugunaren argazkia ateratzea eta, ondoren, pixkanaka lan egiten hastea, motibatzailea edo beharrezkoa iruditzen zaigunetik abiatuta.

2 → Edukiari eta formari dagokienez, dokumentua zuzentzen zaio hezkidetzajarduerak eta -prozesuak gauzatzen dituzuen edo zuen egunerokoan pedagogia feministak ezarri nahi dituzuen pertsonen, erakundeen edo ekimen hezitzaileen. Bistan denez, ezinbestekoa iruditzen zaigu, nerabeekin izango den elkarrekintzaren aurretik eta horrekin batera, zuen hezitzaile zeregina edo rola berraztertzea hezkidetzaren begirada oso batetik. Horregatik, esku artean duzun koadernoari buelta ematean aurkituko duzue: "HEZKIERAK. Hezkidetzan lan egin nahi duten hezitzaileentzako orientabideak". Bertan, gure ustez hezitzaile rol horretan kontuan hartzea komeni diren gaiei buruzko zenbait ohar, gako edo galdera mahaigaineratzen dira.

⁴ Dokumentu honetan gaztaro eta nerabezaro kontzeptuak berdinean erabili ditugu. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) nerabezaroa definitzen du 10 eta 19 urte bitartean eta gaztaroa 15 eta 24 urte bitartean. Hemen 12 eta 18 urte bitartean dauden pertsonen ari gara. Bestalde, tarte horren barruan nerabezaro eta gaztaro guztiak barne hartzen ditugu, hainbat errealitate eta rol daudela jakinik.



2 → HEZKIDETZA ETA PEDAGOGIA FEMINISTAK


HEZKIDETZA:⁵ Ikuspegi feminista interseksional⁶ batetik berdintasuna aldarrikatzen duen hezkuntza da hezkidetza, bai hezkuntza formalean —sozializazioaren, prestakuntzaren eta ikaskuntzaren espazio giltzarria—, bai hezkuntza ez-formalean eta hezkuntza informalaren espazioetan. Hezkidetzak, modu horretan ulertuta, honakoak hartzen ditu barne:

- Genero-desberdintasunen ondorioz sortzen diren arrakalak (rolekin, espazioekin, boterearekin, balioarekin eta bizi-proiektuekin lotuta) zalantzan jartzea eta horien gaineko kontzientzia handiagoa izatea, irakurketa kritiko lokal-global batetik abiatuta.

⁵ Erreferentziatzeko dokumentua: 2024 Sorginlore "AHALDUNTZEKO ZUBI HEZKIDETZAILEAK: Diálogo local-global entre experiencias coeducativas". Eredu-dokumentua, eLankidetzak – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia eta Bilboko Udala.

⁶ Interseksionalitatea: "...zapalkuntza, diskriminazio edo desabantaila mota askoren arteko elkarrekintza eta gainjartzeari buruzko kontzeptua da, hala nola generoa, arraza, gizarte-klasea, sexu-orientazioa, adina, ezgaitasuna, besteak beste. Kimberlé Crenshaw akademiko afroamerikarrak sortu zuen 1980ko hamarkadan, Estatu Batuetako emakume beltzen esperientziak azaltzeko. Emakume horiek, generoagatik ez ezik, arrazagatik pairatzen zituzten diskriminazioei aurre egin behar zieten, eta haien esperientziak ezin ziren zapalkuntza-ardatz bakar baten bidez guztiz ulertu. Interseksionalitateak onartzen du zapalkuntza mota horiek ez direla soilik batera existitzen, baizik eta elkarrekin uztartu eta indartu egiten direla, eta diskriminazio/desabantaila-esperientzia bakarrek eragiten dituztela gizartean egoera marjinal ugari pairatzen dituzten pertsonengan. Ikuspegi horrek azpimarratzen du, desberdintasun sozialak aztertu eta jorratzerakoan, garrantzitsua dela identitateen eta esperientzien interseksioa aintzat hartzea." Crenshaw, K. (1989). Demarginalizing the intersection of race and sex: A black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics. University of Chicago Legal Forum, 1989 (08), 139-167.

- Jarrera-aldaketa batera iristen laguntzea, askatasun, ahalduztze eta sororitate handiagoa izateko eta, hala, zisheteronormatiboak⁷ diren eta naturalizatuta dauden jarrerak gainditzeko.
- Imajinario, narratiba, botere, lidergo, bizitza eta elkarbizitza emantzipatzaile, berdinzale, solidario eta indarkeriarik gabekoak sortzeko, barneratzeko, bizitzeko eta hedatzeko parte-hartze aktiboa, indibiduala eta kolektiboa.
- Pedagogia feministetan oinarritzea eta, horiek aztertzean eta praktikara eramatean, interseksionalitatearen, herri-hezkuntza feministaren, kulturartekotasunaren, transfeminismoaren⁸ eta feminismo dekolonialaren⁹ ekarpenak txertatzea.



⁷ Zisheteronormatiboa: Mandatu sozial honen arabera, ondorengoak dira bete beharreko arauak:
_ Zis: Aluarekin jaio eta emakume bezala autoidentifikatu edo zakilarekin jaio eta gizon bezala autoidentifikatu.
_ Hetero: Emakume bezala identifikatu eta gizonak bezala identifikatzen diren pertsonenikiko desira erromantiko, fisiko eta afektiboa sentitzea, eta alderantziz.
_ Normatiboa: sexu-genero sistemak inposatutako rol edo arauak bete behar dira (femenino-masculino)

⁸ Transfeminismoa: Feminismoaren korrante bat da, borrokaren subjektua emakume zisengandik haratago zabaltzen duena. Defendatzen du beraz, sistema zisheteronormatibo binario eta biologizistak berezko lotura duela patriarkatuarekin, eta, horrenbestez, LGTBQ+ pertsonak ere zapalduak direla. Gainera, ikuspegi interseksional batetik abiatzen da, anti-kapazitistak diren eta arrazakeriaren aurkako jarrerak txertatuz. Horrela, egitura sozial eta politikoak eraldatzea du helburu, emakume zisen zein disidentziei eragiten dieten desberdintasun sistemikoak borrokatzeko.


⁹ Feminismo dekoloniala: "...feminismoaren barruko korrantea da, feminismoaren eta kolonialismoaren eta inperialismoaren aurkako borrokaren arteko interseksioan oinarritzen dena. Kolonialismoak inposatu dituen eta emakumeen zapalkuntza betikotzen jarraitzen duten botere- eta menderatze-egiturei aurre egin nahi die, bereziki komunitate kolonizatu edo baztertuetakoei. Ikuspegi horrek onartzen du emakumeen esperientziak eta borrokak ez direla homogeneousak, eta testuinguru historiko, kultural eta politiko espezifikoak kontuan hartu behar direla genero-desberdintasunak eraginkortasunez ulertu eta aurre egiteko." González, J., De León, E., & Carrillo, H. (2017). Feminismos Descoloniales. Convergencia Revista de Ciencias Sociales, 24(75), 143-169.

PEDAGOGIA FEMINISTAK¹⁰: Pedagogia feministak honela defini daitezke: Hezkidetzaaren horizontean (hau da, zisheteropatriarkatua eta arrazakeria desagiten dituen eta berdintasuna ikuspegi feminista interseksionaletik aldarrikatzen duen hezkuntza formala, ez-formala eta informalean), modu kolektibo eta kokatuan, aurrerapausoak ematea ahalbidetzen duten irakaskuntza-ikaskuntza premisak, praktikak eta metodoak esploratzen, esperimentatzen, aztertzen eta testuinguruan jartzen dituztenak.

Horretarako, honako hauek bete behar dituzte:

- Sexu-genero sisteman eta beste zapalketa hegemoniko batzuetan ematen den sozializazioak, gure gorputzetan, horien bizipenetan, gure pentsamenduan eta sortzen ditugun harremanetan uzten dituen arrastoak identifikatzea eta ikusaraztea erraztea, emakume eta gizon izatearen (femeninoa eta maskulinoa bezala kategorizatu dagoena) inposatutako esanahi bakarra arazo bihurtuta.
- Pertsonen bizitzan, hezkuntza-sistemetan eta hezkuntza-espazioetan zuzeneko eragin materialak dituzten estereotipoak (sexuaren, arrazaren edo identitatea osatzen duen edozein elementuren araberako estereotipoak) detektatzea eta desikastea.
- Araua bete edo ez betetzeagatik justifikatzen edo bere horretan uzten diren aurreiritziak, diskriminazioak, indarkeria zorrotzak eta zuzenak ez errepikatzea.
- Botere-harremanak zalantzan jartzea eta banakako eta taldeko boterea indartzea.
- Hezitzaile eta komunikatzaile bezala, neutroak ez garela jabetzea, gure joerak, pribilegioak, oztopoak, beldurrak eta nahiak aitortzea, horien erantzule egitea eta normaltasunaz eta arauaz dugun ikusmoldea zalantzan jartzea. Materialak, erreferentziak, hitzeko eta hitzik gabeko hizkuntza, espazioen eta taldeen antolaketa berrikustea.

- Rol, lidergo eta narratiba pluralak eta ez-naturalizatuak sustatuko dituzten praktikak gauzatzea; gaitasun, bizitza-ibilbide eta ahots ez-hegemonikoei tokia eman eta aitortuko dituztenak; konfiantzazko, segurtasuneko, parte-hartze osoko, entzute aktiboko eta indarkeriarik gabeko komunikazioko tokiak sortuko dituztenak; aizpatasuna sustatu eta ikuspegi globala duten tokiko esperientzietan inspirazioa bilatuko dutenak.
- Plazerra aldarrikatzea eta esanahia berradieraztea. Berdintasuna defendatzearen plazerra, ez zerbait formal, instituzional eta nahi-taezko bezala, baizik eta zerbait atsegin eta motibatzaile bezala. Irudikatzearen eta izatearen plazerra, existentzia eta bizikidetza dinamikoetan, sortzaileetan eta beteetan, zisheteronormatibitatearen desagitetik abiatuta. Plazerra jolasetik, gorputzetik, topaketatik eta artetik.



¹⁰ Erreferentziatzeko dokumentua: 2024 Sorginlore "AHALDUNTZEKO ZUBI HEZKIDETZAILEAK: Diálogo local-global entre experiencias coeducativas". Eredu-dokumentua, eLankidetza – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia eta Bilboko Udala.

3 → IKASKETA ETA INPAKTU HEZKIDETZAILEA

*"Irakastea ez da ezagutza transferitzea,
norberak sortzeko eta eraikitzeke aukerak
sortzea baizik"*

Paulo Freire

*"Askatasunaren praktika hasten da
barneratuta dugun menderatze-legatuari
aurre egiten"*

bell hooks

Sarreran aipatu dugun bezala, hezitzaileak garen heinean, hezkidetza-ingurune feministagoak eraikitzea badugu helburu, eta gizartea eraldatzeko urratsak eman nahi baditugu, komeni da honi zeharkakotasunetik heltzea. Aldi berean, komeni da ere, gazteengan eragina izango duten ikasketa esanguratsuak eta testuinguruak sortzea, eraldaketa hori eta eraldaketa horretan duten protagonismoa sustatze aldera. Horretarako, **pentsamenduak eta sentimenduak martxan egon behar dute, gorputzetatik, emozioetatik, kontrastetik eta bizipenetatik datozen azterketa eta hausnarketa mekanismoekin**. Hainbat korronte pedagogikok erakutsi digute hori banaka eta taldean egin daitekeela, eta bakoitzak abantailak dituela. Hori bai, justizia eta ekitatea helburu ditugunean, bidea sendoagoa eta aberatsagoa izango dela dirudi, ikasketa praktikatik eta kolektiboan egiten badugu.

Herri-hezkuntzak etengabeko prozesuez hitz egiten digu eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboaren garrantzia azpimarratzen du. Zaintza, konfiantza eta parte-hartzea bultzatzen diren espazio eta moduetan lan egitea proposatzen du, eta hori ekintza-hausnarketa-ikasketa-ekintza zikloaren barruan kokatzen da. Ziklo hori ez da beti urrats linealak jarraitzen dituen prozesu bat, baizik eta zirkularra da: ekintza hutsean ez da hasten, baizik eta sentitu eta pentsatutako hausnarketa edo diagnostiko batetik abiatzen da. Ekintza garatzen den bitartean, ikasketak kontzienteago bihur daitezke, eta esperientziaren inguruko hausnarketek (zer eta nola egin den) diagnostikoa eguneratzeko aukera ematen dute, horrela estrategiak eta kolektiboak indartuko dituzten ikasketa esanguratsu berriak sortuz.



¹¹ Herri-hezkuntza ikasketa politikorako ikuspegi parte-hartzailea da, non pertsonak beren bizitzak, testuinguruak eta garrantzizko gaiak modu kritikoan aztertzen dituzten. Horren bitartez, ekintzarako estrategiak garatu eta moldatzeko gaitasuna lantzen dute. Erref. Jass Poder Colectivo

Beraz, prozesu- eta ziklo-ikuspegi horrek hiru mailatan eragiten du:



→ Banakakoan

Pertsonak beren buruaren eta inguru-nearen kontzientzia handiagoa garatzea errazten du. Eguneroko bizitzan topatu eta aurre egin behar dieten zapalketak zalantzan jartzeko eta horiei kontra egiteko ahalduntzea bultzatzen du espazioen eta tresnen bidez.



→ Komunitarioan

Elkartasun kritikoa, kide izatearen zentzua eta erantzunkidetasuna bultzatzen ditu. Horrek beharrak eta ahalmenak identifikatzea errazten du, baita kolektibotasunak ematen duen boteretik estrategiak eta ekintzak gauzatzea ere.



→ Jendartean edo sozialean

Egitura-sozial bidegabeak eta kultura hegemonikoa eraldatzeko boterea du.

Bell hooksek dioen bezala, gure iritziei eta ekintzei buruzko hezkuntza eta hausnarketa kritikoa tresna boteretsuak dira, pertsonak eraldatu eta baita kultura-egitura zapaltzaileak eraldatzeko ere. Hori da herri-hezkuntzaren oinarrietako bat: inork ez dio inori irakasten, baizik eta guztiok ikasten dugu gure bizipenetatik, begiradetatik eta esperimentzietatik, eta elkarrekin eraldatzen dugu eta eraldatzen gara.

Beraz, ohartzen gara, ikasketaren bilaketa eta eraikuntzaren baitan **aldaketa asmoa dagoela; gure ikuspegitik, zehazki, aldaketa feministaren horizonteaz ari gara**. Asmo horrekin berarekin, funtsezkoa da lortu nahi den inpaktua zein den argitzea eta zehaztea:

- Zergatik eta zertarako jartzen dugu zerbait martxan? Saia gaitzen saihesten politikak eta neurriak inertziagatik, gizarteko alarmagatik edo zerbait egiten dela justifikatzeagatik aktibatzea edo jarraitzea.
- Zertan eragin nahi dugu zehazki? Dena dela, abiapuntua ezagutu behar dugu, zalantzarik gabe. Estrapolazioetan, orokortasunetan eta susmoetan oinarritzeak ez du bide luzerik.
- Norengan ikusi nahi dugu inpaktu hori? Gazteei buruz ari gara, edo, lehenik edo aldi berean, pertsona eta erakunde hezitzaileen gan ipini behar dugu arreta?


Gure neurriak eta ekimenak lortu nahi den inpaktu horren arabera definitu beharko lirатеke. Bistan denez, kontuan izan beharko genituzke ere gure mugak, ahuleziak eta indarguneak, eta aukerak eta arriskuak. Azkenik, gure hausnarketak eta ebaluazioak aztertuko luke lortu nahi genuen inpaktuari dagokionez aurreratutakoa, baita ekimenen diagnostikoan eta berrikuspenean eragina izango luketen ustekabeko inpaktu negatiboak eta positiboak ere.

Zehazki, hezkidetzaz ari bagara, lortu nahi den inpaktua generoaren araberako desberdintasun-arrakalak gutxitzean eragingo lukeena izango litzateke, azterketa interseksionala kontuan hartuta.

Ondorengo **maila edo planotan ematen den inpaktuaz** ari gara:

- Zereginei, tokiei, botereari, balioari eta bizi-itxaropenei buruzko arrakalak **zalantzan jartzea eta kontzientzia handiagoa izatea**, tokiko eta mundu-mailako irakurketa kritikoan oinarrituta.
- **Jarrera- eta jokabide-aldaketa**, askatasun, ahalduztze eta ahizpatasun handiagoan islatuta, normatiboa eta naturalizatua dena gaiinditzeko, genero-disidentzietatik ikasita.
- Parte-hartze aktiboa **eraikuntza kolektiboan** eta narratiba, iruditeria, izate eta bizikidetzaz emantzipatzaileen, ekitatiboen, itxaropentsuen, seguruen, solidarioen eta jasagarrien hedapenean.

Premisa horiekin, hurrengo atalean, **hezkidetzaz-erlaketan funtsezkoak diren 4 eduki-multzo** landuko ditugu (bakoitzean planteatzen diren galderen helburua da, sistema patriarkalak eragindako indarkeria inplizituak detektatzea, eta hezitzaileengan gogoeta, kontzientzia eta abian jartze eragiketa bat sustatzea).



**Oinarrizko kontzeptuak
eta sinismenak**



**Pertsonen arteko
harremanak**



Komunikazioa



Espazioak

Adierazi behar da, horietako bakoitzean proposatzen diren galderen helburua dela sistema patriarkalak eragindako indarkeria inplizituak antzematea eta hezitzaileek hausnarketarako, kontzientziarako eta martxan jartzeko ariketa egin dezaten abiapuntua ematea.

Helburua: Aldaketa hezkidetzailea




Nola: Pedagogia feministak

- Gazteek subjektu bezala parte-hartzea
- Hezitzaile rola
- Lan kolektiboa

Zer:

- Diagnostikoa
- Ekintza
- Ebaluaketa
- ...

4 → TEORIATIK PRAKTIKARA




Hurrengo lerroetan proposatzen duguna da, hezkuntzako esku-hartzeak diseinatzeko eta planifikatzeko orduan, lehentasunez landu beharreko alderdia identifikatzea, lortu nahi den inpaktua zehaztea eta hori neurtzeko moduak aurreikustea. Horretarako, aipatutako 4 eduki-mul-tzoak kontuan hartzea proposatzen dugu (oinarrizko kontzeptuak eta si-nismenak, komunikazioa, pertsonen arteko harremanak eta espazioak), eta lan egiten dugun gazteria zein garapen-fasetan kokatzen den az-tertzea, bai esku-hartzearen aurretik bai ondoren: kontzientzia hartzea eta zalantzan jartzea, jarrerak eta jokabideak aldatzea, eta eraikuntza kolektiboa.

Era berean, garrantzitsua da gazteen garapen-une ebolutiboa kontuan izatea, hezkuntza-prozesuak egokitu eta proposatutako helburuetan errealistak izateko. Nerabezaroko ikasketak, motibazioak eta jarrerak elkarreragiten duten hainbat alderdik baldintzatzen dituzte. Alderdi ho-riek gaztea dagoen garapen-etaparen berezkoak dira.

Hona hemen nabarmentzeko modukoak diren batzuk:

- **Gaitasun kognitiboa eta garunaren garapena:** Neurozientziak frogatu du nerabezaroan garunak hazkunde-prozesu izugarria izaten jarraitzen duela, eta oraindik garapen-prozesuan daudela autonomiarekin lotutako funtzioak, hala nola erabakiak hartzea edo planifikatzea, baita autokontzientzia, bulkaden kontrola eta empatia ere. Horrez gain, garai honetan emozioekin lotutako garun-jarduera bereziki bizia da.
- **Aurretik izandako esperientziak:** Haurtzaroan bizitako esperientzia eta barneratutako ikaskuntzek "motxilak" osatzen dituzte, eta horiek lagungarri edo oztopo izan daitezke identitatearen bilaketan, independentziaren lorpenean eta pertsonen arteko harremanak eraikitzeko prozesuan. Prozesu horietan, aurretik izandako esperientziak nerabe bakoitzaren testuinguru espezifikoarekin elkartzen dira.
- **Aldaketa fisikoak:** Garai honetan, gorputzak aldaketa handiak izaten ditu: hazkunde bizkorra, bigarren mailako sexu-ezaugarrien garapena, sexu-desioaren eta beste pertsonenganako erakarpenaren agerpena (edo ez agerpena). Aldi berean, gazteek gero eta kontzientzia handiagoa hartzen dute beren itxuraz eta garapen fisikoaz, inguruko beste pertsonekin alderatuta.
- **Pertsona arteko garapena:** Etapa honetara arte, pertsonak erreferentziazko helduen baieztapenetan sinesten dute. Hemendik aurrera, ordea, esperimintatzea beharrezkoa bihurtzen da baliozkoa eta erreala dena egiaztatzeko. Era berean, erreferente berrien iritzia eta parte sentitu nahi duten parekoen taldearen onarpena lehenesteko joera dute.

4.1 → HAS GAITEZEN...



Hezkidetza-eraldaketa batean funtsezkoak diren eduki-multzoen arabera antolatuta dauden hurrengo taulek, gure esku-hartzea argitzen eta kokatzen lagunduko digute. Gida bat dira, honako galderei buruzko hausnarketa sustatzeko:

- Zein eremutan jardun nahi dut?
- Zein maila edo planoan dago lan egingo dudana gazteria?
- Zer inpaktu-mailara bideratuta dago proposatuko dudana jardueran? Non eragin edo sakondu nahi dut?



Oinarrizko kontzeptuak eta iritzia

Konizientzia eta zalantzan jartzea	Jarrera eta jokabide aldaketa	Eraikuntza kolektiboa
Generoa → Genero-identitatearen arabera, beste pertsonekin modu desberdinean harremanetan al dira? → Genero bakoitzari ezaugarri, rol eta estereotipo zehatzak lotzen al dizkiote, eta horiek aldatzen al dira pertsonen jatorriaren, erlijioaren eta antzekoen arabera? → Generoen diskriminazioa ukatzen al dute, edo aldez, diskriminazio horiek identifikatzen al dituzte eta horiek azaltzeko adibide argiak dituzte?		
Genero adierazpena → Genero-adierazpen jakin batek (jantziak, osagarriak, ile-stiloa, makillajea, ibiltzeko, mugitzeko eta hitz egiteko modua, etab.) deseroso sentiarazten al ditu? → Modu inkontzientean ziurtzat jotzen al dute pertsona gehienak heterosexuak direla? → Sexu-orientazioa eta genero-adierazpena nahasten al dituzte?		

Gizarte-balioa → Zenbait jolas, kirol, lan eta ekintza genero batekin identifikatzen al dituzte? Ondorioz, balio desberdina ematen al diete? → Emandako generoari dagokionez espero denaren arabera jokatzeko dute, onarpena eta/edo aitopena jasotzeko? → Gazteen artean boteririk handiena duten taldeak hegemonikoak al dira, generoak adierazitako estereotipoen eta rolen arabera?			
Indarkeriak → Indarkeria matxistak eta sexistak (hitzezkoak, hitzik gabekoak, gorputzekoak, kolektiboak...), fobiak (lodi-fobia, LGBTBI+fobia) eta jarrera arrazistak identifikatzeko gai dira? → Indarkeria horiei aurre egiteko, ezagutzen al dituzte ikastetxeetako, hezkuntza guneetako eta udalerrietako erreferentziazko tresnak, tokiak, protokoloak eta pertsonak? → Indarkeria horiek nondik kudeatzen dituzte: isiltasunetik, elkarriketatik, erreparaziotik, parekoen, talde feministen edo erakundeen babesetik, laguntzatik?			
Corputzak → Nor bere gorputza ezagutzen eta maite al dute? → Gorputzen aniztasuna, desira eta desiragarritasuna errespetatzen dituzte? → ¿Taldearen barruan, zein gorputzek hartzen dute leku eta balio gehien?			

 Komunikazioa		 Konzientzia eta zalantzan jartzea	 Jarrera eta jokabide aldaketa	 Eraikuntza kolektiboa
Ahozko eta gorputz-hizkuntza → Txantxak eta iruzkin sexistak egiten al dituzte? → Konnotazio sexuala, arrazista, kapazitista edo klasista duten hitzak erabiltzen al dituzte zerbait positiboa eta zerbait negatiboa adierazteko? → Taldean eta espazio desberdinetan, genero-identitatearen arabera gorputz-adierazpen desberdinak (mugimendua, negarra, barrea, oihua...) balmentzen/ onartzen al dituzte?				
Idatzizko hizkuntza → Berdintasuna sustatzen duen eta inklusiboa den hizkuntza erabiltzen al dute? → Aurkezpenetan, idazlanetan, iruzkinetan eta halakoetan, hegemonikoaren eta naturalizatuaren aurkako narratiba kritikoak eta ordezkioak garatzen dituzte (argudioak, protagonistak, rolak, boterea, analisisa...)?				

Irudiak → Rol, perfekzio eta edertasun ereduak dagokienez, irudi estereotipatuak erabiltzen eta baloratzen al dituzte? → Beraien inguruetan dagoen aniztasuna (gorputzak, genero-identitate eta adierazpenak, familia edo bizikidetzak-unitateak...) islatzen duten (edo ez duten) irudiak sortzen eta erabiltzen al dituzte?				
Tabuak eta isiluneak → Tabuak sustatzen (edo normalizatzen) dituzte? Adibidez, galtzak hilekoarekin zikintzea. → Isiluneak identifikatzen eta kudeatzen al dituzte? Adibidez, isilunea zerbait zehatzari garrantzirik ez emateagatik, bizirauteagatik eta segurtasunagatik, parte hartu nahi ez izateagatik edo hitza aintzat hartuko ez delako edo horri buruz ezer egingo ez delako merezi ez duelako.				
Materialak → Beraien genero-identitatea edozein dela ere, eroso sentitzen al dira tailerretan, ospakizunetan edo kirol-jardueran eskatzen diren jantziekin? → Beraien genero-identitatea eta sexu-orientazioa edozein direla ere -ikuspegi intersektional batetik-, irudikatuta eta konektatuta sentitzen al dira hezkuntza-materialekin (ariketak, adibideak, erronkak, nahitaezko edo gomendatutako irakurketak, estekak, erreferentziak, ikus-entzunezkoak...)?				



Pertsonen arteko harremanak

Konizientzia eta zalantzan jartzea	Jarrera eta jokabide aldaketa	Eraikuntza kolektiboa
Harreman osasuntsuak → Zer ulertzen dute harreman osasuntsutzat? Zer espero dute lagunengandik? → Pertsona ez-binarioekin, neskekin eta mutilekin harreman osasuntsuen eta tratu onaren gakoak kontuan hartuta jokatzeko al dute? → Harreman-mota desberdinak era malgu eta seguru batean sortzen eta onartzen al dituzte? Adibidez: lagun-taldeak, harreman afektibo-sexualak, loturak eta aliantzak jardueren eta/edo helburu partekatuen arabera -borondatezkoak izan daitezkeenak eta une jakinetara mugatuak edo ez-...		
Boterea → Genero, arraza, adin edo klasearen arabera botere dinamika asimetrikoetan oinarrituta harremanitzen al dira? (lan-taldeen, lagun-taldeen, jolastokietan, ikasgelan, aisialdiko jardueretan, kirol-taldeen...) → Diskriminazioak eta baztertzekoak sortzen al dituzte? Pasiboki konplizeak badira, zergatik jokatzeko dute horrela? → Botere feministaren formak sustatzen al dituzte? Adibidez: jakintza eta egite guztiak baloratzean oinarritutako boterea, narrazio feministak eraiki eta zabaltzeko boterea, identitate minorizatuekin edo minorizatuen arteko boterea...		

Arauak eta mugak → Identitate desberdinen arabera jokabide-arau desberdinak onartzen al dituzte? → Argi al dituzte muga pertsonalak eta kolektiboak (ahoz edo gorputzez adierazitakoak)? → Pertsona guztien mugak onartzen al dituzte, balio edo botere ezberdinik eman gabe eta presiorik eragin gabe?		
Gatazkak konpontzea → Zein jarrera hartzen dute gatazka sor daitezkeen espazio, une edo protagonisten aurrean? Modu desberdinean jokatzeko al dute; beren genero-identitate eta sexu-orientazioaren arabera (beste identitate-ardatz batzuekin gurutzatuta)? Eta gatazkaren parte diren pertsonen identitateak kontuan hartuta? → Ba al dute esperientziarik, erreferentziarik eta tresnarik gatazka taldean eta modu feministan kudeatzeko? Ba al dute laguntzarik edo ba al dakite non bilatu laguntza edo sostengua?		
Zaintza → Osasun integralaren kontzeptutik (mentala, emozionala eta fisikoa modu orekatuan) autozaintzen diira eta taldea zaintzen dute? Genero-identitatearen arabera desberdin egiten al dute? → Ahizpatasuna eta elkartasuna taldeen eta jardueren dinamiken barruan sartzen dute? → Tokiak erantzunkidetasunez zaintzen al dituzte?		

 Espazioak		Konzentzia eta zalantzan jartzea	Jarrera eta jokabide aldaketa	Eraikuntza kolektiboa
Espazio kolektiboak → Nola erabiltzen dituzte espazio kolektiboak? Nork betetzen du toki fisiko, soinu, arreta... gehien? Nola bizi da taldean okupatze hori? Genero-identitatearen eta/edo pribilegioz edo zapalketaz intersekszionatutako beste faktore batzuen araberakoa al da? → Modu aktiboan parte hartu al dute tokien eta horien muga eta arauen diseinuan eta antolaketan? Jarrera, aukera eta aitortpen desberdinak izan al dituzte parte-hartzean, genero-identitatearen eta/edo pribilegioz edo zapalketaz intersekszionatutako beste faktore batzuen arabera? → ¿Puntu kritikoak antzeman dituzte? Nork, non eta zergatik hautematen dute segurtasunik eza edo arriskua?				

Taldeen barruko espazio edo giro motak → ¿Espazio partekatuetan eroso sentitzen al dira gehienbat? Nor (nortzuk) sentitzen da (dute) taldeko kide, epaitzen dela jakin arren? → ¿Nork (nortzuk) sentitzen du(te) espazio partekatutak konfiantzazko espazioak direla (lasai hitz egin dezake(te) eta iritzia eman, epaitua(k) izan gabe, muga argiekin eta gardentasunarekin)? → Nork (nortzuk) sentitzen du(te) espazio partekatutak espazio seguruak direla (kezkek, ideia eroak eta ahuleziak parteka ditzake(te), ulertzen eta laguntzen zaio (zate)? → Nork (nortzuk) sentitzen du(te) talde mistoetan interdependentziarako, ahizpatasunerako edo taldeko elkartasunerako tokiak direla?				
Ospakizunak → Zer ospakizun mota nahiago dituzte? Zer ordutegi, jarduera-mota, erreferentzia, ohitura, espazio, rol posible edo parte-hartze modurekin? → Nork (nortzuk) hartzen du(te) parte, nor (nortzuk) da (dira) protagonista, nork (nortzuk) ez du(te) parte hartu nahi? Horren zergatiak zerikusia du sexu-genero sistemarekin, beste zapalketa-ardatz batzuekin, helduen ikuspegitik egindako diseinuarekin eta antolaketarekin...? → Gazteen iruditeriak eta ospakizunen praktikak genero-estereotipoak areagotzen al ditu? Horietatik askatzeko aukera ematen al du? Beharrak eta nahiak salatzen al ditu? Adibidez, inauterietan emakume hipersexualizatutako moztorroekin jantzitako mutilak, jantzi tradizionalak...				

4.2 → PIXKANAKA

Martxan jartzeko ordua iritsi da! Kezkatzen edo motibatzen zaituzten gai bat aukeratzea proposatzen dizuegu, berdin dio handia edo txikia izan eta gero, ekin lanari! Gida moduan, hurrengo fitxa erabil dezakezue. Honetan lagunduko dizue:



→ Hezkidetzan egin behar duzuen esku-hartzearen ezaugarri bereizgarriak laburbiltzen eta argi ikusten.



→ Arreta inpaktuan jartzen eta inpaktua neurtzen, prozesua egokitzen joateko eta ezarritako helbururantz aurrera egiteko.

Aldaketa hezkidetzailea



1. adibide praktikoa

1 ERRONKA Nire ustez, zer alderdi jorratu behar da edo jorratzea komeni da?	☐ OINARRIZKO KONTZEPTUAK ETA SINISMENAK ☐ KOMUNIKAZIOA ☐ PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK ☐ ESPAZIOAK Oraintxe, saio bakoitzean denbora guztian ahots berberak entzuten dira, tonu matxistarekin. Gazteekin lan egin nahi dut denek hitz egiteko tartea izan dezaten eta iruzkin matxistez ohar daitezen.
2 PROPOSATU-TAKO INPAKTUA Zer inpaktu lortu nahi dut eta norengan?	Lortu nahi ditudan inpaktuak: → Jarrera hori duten gazteen jarrera aldatzea eta ikuspegi kritikoa eta entzute aktiboagoa izan dezatela. → Jarrera hori ez duten gazteen aldetik, iritzia eman ahal izan dezatela eta esaldi matxistak, arrazistak eta klasistak identifika ditzatela. → Tentsio-espazioak baliatzea desadostasunak tratatzeko hainbat modu lantzeko.
3 DIAGNOSTIKOA Zein unetan gaude?	Taldeak harremanak izateko duen moduan, 15 pertsonatik 10 pertsonak iruzkin matxistak eta sexistak egiten dituzte etengabe, grazia egiteko eta taldeko kide sentitzeko. Besteek gustuko ez izatearen aurpegia jartzen dute, baina ez da ezer gehiago egiten.

4 PROPOSAMEN ZEHATZA Zein da egin nahi dudan jarduera edo prozesua?	Iruzkin matxistak, arrazistak eta klasistak identifikatzea gure egunerokotasunean barneratzea proposatuko diet. Iruzkin horiek lantzeko, eranskailu batzuk izango ditugu eskura. Norbaiti iruzkinen bat mota horretakoa dela iruditzen zaion bakoitzeko, urrats hauek jarraituko ditugu: → Eranskailu urdin bat jarri egutegian. → Matxista, arrazista edo klasista zergatik dela uste dugun esan eta ordeko esaldi bat proposatu. Ekimenaren asmoa da eskolen egunerokoan integratzea eta barneratuta ditugun eta jabetzen ez garen zenbait gauzaz ohartzea. Cuztiz debekatuta dago epaitzea. Asmoa da talde osoak iruzkin horiek identifikatu ahal izatea, gaiari buruz hitz egiteko giroa sortzea, inor erasotua sentitu gabe, eta ikuspegi kritikoa izatea.
5 ZER GERTATU DA proposamena martxan jartzean	Oso giro ona zegoen egun bat aprobetxatu dut ekimena partekatzeko. Hasieran ez zaie asko gustatu, asko erasotuen sentitzeko beldur ziren. Eranskailuak eskura jarri ditugu eta "ez neskatala izan" lehenengo esaldiarekin, pegatina urdina egutegian. Hain matxista ez den beste hitz bat bilatzen saiatu gara, erruan zentratu gabe, beste aukeretan baizik, eta horrek harritu egin ditu. Beste hitz bat bilatzen saiatu gara, kostatu zaigu. Azkenean "utz nazazu bakean" esaldian gelditu da. Lehen egunaren ondoren, egun batzuetan funtzionatu du eta beste batzuetan batzuk eranskailuekin gogaituta agertu dira. Dena dela ere, dinamika astebetean taldearen funtzionamenduan integratua gelditu da.
6 LORTUTAKO INPAKTUA Proposatutakoa lortu al da? Ezusteko inpakturik izan al da?	→ Esaldi matxista oso normalizatuak identifikatu dira. → Beste egun batzuetan antzeko esaldiak esan zituztenek esaldi proposamen berriak egin dituzte. → Gehienetan giro positiboa egon da eta zalantzak partekatu ahal izan dira. → Mutilek zalantzei buruz hitz egin dute, eta gai horrekiko ikuspegi kritikoa izateko tokia egon da, erasotuen sentitu gabe.
7 IKASKETA Zer ikasi dut prozesutik?	

2. adibide praktikoa

1 ERRONKA Nire ustez, zer alderdi jorratu behar da edo jorratzea komeni da?	☐ OINARRIZKO KONTZEPTUAK ETA SINISMENAK ☐ KOMUNIKAZIOA ☐ PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK ☐ ESPAZIOAK laztik hona, jabetzen hasia nago, gehienbat, mutilek hartzen dituztela aisialdiarekin lotutako erdiguneak edo gune pribilegiatuena (komunak, korridoreak, eskailera zabalagoak, kanpoko espazioen erdigunea, ikastetxearen inguruan estrategikoki kokatutako eserlekuak, zakilen marrazkiak agertzen diren hormak...). Duela hilabete batzuk, gazte talde bat (neskez eta ez-binario diren bi pertsonaz osatua) niregana hurbildu zen eta kexatu egin zen ikastetxeko sarreran zegoen eserlekutik joan behar izan zutela esanez, han egon ohi zen mutil taldeak izan zuten jarreragatik. Kexa horri erantzun nahi diot.
2 PROPOSATU-TAKO INPAKTUA Zer inpaktu lortu nahi dut eta norengan?	Lortu nahi dudana inpaktua bikoitza da: 1. Eserlekua erabiltzen ez duten pertsonengan: Ahalduntze ariketa bat eginez, beraien jarrera eta jokabidea aldatuz, bertan eseri eta eroso egon daitezen. Baita aldaketa hori gauzatzeko, zerbaitetan, modu kolektiboan parte hartzea. 2. Orain arte beti eserleku horretan esertzen diren mutilengan: Erabiltzen eta eragiten ari diren boterearen kontzientzia har dezatela.
3 DIAGNOSTIKOA Zein unetan gaude?	Gazteek aisialdian erabiltzen dituzten toki guztietatik, pribilegiatuena, maskulinitate hegemonikoa ordezkatzan duten mutil-taldeek betetzen dituzte gehienbat. Beste gazte-talde batzuk honetaz hitz egiten eta kexatzen hasi dira. Gainera, aitortzen dute askotan saihestu egiten dutela pertsona horiek dauden korridoreetatik edo lekuetatik igarotzea, deseroso sentiarazten dietelako.
4 PROPOSAMEN ZEHATZA Zein da egin nahi dudana jarduera edo prozesua?	Gai hau pixkanaka lantzen hasiko naiz eta lehenengo laguntza eske nigan hurbildu zen gazte taldearen kexei erantzungo diet. Gazte horiekin hitz egin dut eta honako hau bururatu zaigu: eserlekua inguratzen duen tokia pixka bat hondatuta dago eta taldeko batzuek sentsibiltatea eta trebetasun artistikoak dituzte. Ingurunea birmoldatzea proposatu dugu, lekua eta eserlekua margotzen. Deialdi irekia egingo dugu.
5 ZER GERTATU DA proposamena martxan jartzean	Tokia margotuz birmoldatzeko jarduera kolektiboa ondo joan zen. Kexatzera etorritako talde osoak parte hartu zuen, eta lagunak eta beste gazte taldetxo batzuk ere erakarri zituzten. Eserlekuan egon ohi zen taldeak urrutitik begiratzen zuen jakin-minez eta tentsio pixka batekin, esango nuke...
6 LORTUTAKO INPAKTUA Proposatutakoa lortu al da? Ezusteko inpakturik izan al da?	→ Margotzeko ekintzaren barruan, gazte gehiago hurbildu da, eta topagune izan da. → Konfiantzazko espazioa sortu da. Prozesuan, besteek proposamena nola biziko duten moduari buruz dituzten beldurrak edo zalantzak partekatu dira, eta hainbat erantzun eta estrategia partekatu dira. → Tokiari bizi gehiago eman zaio, berezkoztat eta okupatu beharreko espazioztat identifikatu da. → Parte hartu duten gazteek bizipen positiboak eta proaktiboak dituzte, baita kolektiboki egoera bidegabeei aurre egiteko ere.
7 IKASKETA Zer ikasi dut prozesutik?	Proposamen bat egiteko orduan, aurre egin nahi zaion egoeran inplikatur dagoen alderdi bakoitzaren maila edo planoa kontuan hartuta egin behar da diseinua: zerbait pentsatu behar da beti eserlekua erabiltzen zuen mutil-taldearen kontzientzia-hartzean lan egiteko. Ez dute bat egin ekimenarekin, eta horrek esan nahi du ez dutela ondo ulertu edo ez dutela partekatzen.

Zure txanda da!

1 ERRONKA Nire ustez, zer alderdi jorratu behar da edo jorratzea komeni da?	☐ OINARRIZKO KONTZEPTUAK ETA SINISMENAK ☐ KOMUNIKAZIOA ☐ PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK ☐ ESPAZIOAK
2 PROPOSATU-TAKO INPAKTUA Zer inpaktu lortu nahi dut eta norengan?	
3 DIAGNOSTIKOA Zein unetan gaude?	

4 PROPOSAMEN ZEHATZA Zein da egin nahi dudana jarduera edo prozesua?	
5 ZER GERTATU DA proposamena martxan jartzean	
6 LORTUTAKO INPAKTUA Proposatutakoa lortu al da? Ezusteko inpakturik izan al da?	
? IKASKETA Zer ikasi dut prozesutik?	

Zure txanda da!

1 ERRONKA Nire ustez, zer alderdi jorratu behar da edo jorratzea komeni da?	☐ OINARRIZKO KONTZEPTUAK ETA SINISMENAK ☐ KOMUNIKAZIOA ☐ PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK ☐ ESPAZIOAK
2 PROPOSATU-TAKO INPAKTUA Zer inpaktu lortu nahi dut eta norengan?	
3 DIAGNOSTIKOA Zein unetan gaude?	

4 PROPOSAMEN ZEHATZA Zein da egin nahi dudan jarduera edo prozesua?	
5 ZER GERTATU DA proposamena martxan jartzean	
6 LORTUTAKO INPAKTUA Proposatutakoa lortu al da? Ezusteko inpakturik izan al da?	
7 IKASKETA Zer ikasi dut prozesutik?	